



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA, INTEGRAZIOA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA BATZORDE INFORMATIBOAK UDABALTZARI AURKEZTUTAKO IRIZPENA

GAIA: Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jardueri diru laguntzak emateko oinarriak aldatzea: Euskaraz publizitatea egiteagatik diru laguntza ematea.

AURREKARIAK

Udalak parte hartze prozesu bidez 2015eko udazkenean abiarazi zuen merkataritzarako eta ostalaritzako zerbitzuak publikoak hobetzeko egitasmoa Iraurgi Berritzen, S.A.-ekin elkarlanean.

Prozesu horren baitan martxoaren 17an merkatarien bilera orokorra ezin zen. Bertan euskara zerbitzuko diru laguntzak eta merkatariei zuzendutako egitasmoaren baloraziorako eztabaida taldean aritu ziren dendariak zioten etxez etxe banatzen dituzten esku-orriak euskaraz egiteak inprimategi gainkostua dakarrela eta udalari hori arintzeko laguntza eskatu zioten.

10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa denak 27. artikuluko 1. atalean dio: “Euskal herri-agintek euskararen erabilera sustatuko dute publizitatean.”

Gizartean hedatutako joera da publizitatea gazteleraz egitea. Iragarleek euskaraz egiteko beharrik sumatzen ez dutelako. Halere, publizitatea ele bitan egiteko joera zabaltzen ari da erakunde publiko eta hainbat enpresa handitan gero eta publizitate kanpaina gehiago elebidunak direlako. Dena den, euskara ez da behar adina publizitatean erabiltzen. Gainera, sarritan iragarritako mezuak jatorrizkoen itzulpen literal okerrak dira.

Publizitatea gizarte osoari zuzendutako ekimena da. Hortaz, adin tarte guztietako herritar askorengana heltzen da eta horien hizkuntzen erabileran eta pertzepzioan eragina du. Beraz, normalizazio ikuspegitik lehen mailako garrantzia du publizitatea euskaraz egiteak. Are gehiago, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean berariazko esparrua du.

Gainera, Azkoitia bezalako herri euskaldunetan adin tarte guztietan euskara gaztelania bezain beste ala gehiago erabiltzen da. Hortaz, zilegi da udalak pizgarriak ematea egoera horrek isla izateko bertako merkatariek, ostalariek eta, orokorrean, jarduera ekonomikoa garatzen duten agenteek egiten duten publizitatean.

Bestalde, onartu berri den 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak 7. artikulua 1. eta 2. atalaren eta 17. artikulua 26. atalean xedatutakoaren arabera, udalen eskumen propioa da euskararen erabilera sustatzea, planifikatzea eta dinamizatzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hortaz, udalaren eskumena da euskaraz publizitatea egitea sustatzea. Helburua hori gauzatzeko udalak erraztasunak eta pizgarriak eman ditzake.

Horren ondorioz, proposamena da aurrekoa bideratzeko Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jardueri diru laguntzak emateko oinarriak (GAO, 129 zk., 2013-07-08) aldatzea eta oinarri horietan publizitatea euskaraz egiteagatik diru laguntza atal berria txertatzea herriko establezimenduek euskarazko testu zuzen, jator eta egoki bidez euren zerbitzu eta produktuak iragartzeko.

Jardunbideari dagokionez, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 49. artikuluan xedaturikoa jarraituko da.

Aipatutako oinarrietako aldaketa Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Integrazioa, Hezkuntza eta Euskara Batzorde informatiboak 2016ko maiatzaren 16an egindako bileran aztertu zuen eta honako irizpena eman zuen:

- Aldeko botoak: Nekane Larrañaga Aizpuru, Sonia Vazquez Tejerina, Ana Azkoitia Urteaga, Miguel Angel Bastida Aranbarri, Maitane Unanue Azkue, Iraitz Otaño Mujika, Jon Ander Larramendi Salegi eta Miguel Pascual Reimundez Milan.
- Abstentzioa: Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Azkoitiko Udalbatza Plenoari ondoko irizpena onartzea proposatzen zaio:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jardueri diru laguntzak emateko oinarrietan jarraian letra lodiz zehaztutako aldagetak hasieraz onartzea euskaraz publizitatea egiteagatik, herriko establezimenduek diru laguntza eskatu ahal izateko.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Azkoitian euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea. Jarduera horiek, betiere, bat egin behar dute Azkoitiko Udalaren euskara programen helburuekin.

Diru laguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

- Ohiko euskara jarduerak bideratzeko.
- Euskara ikasteko.
- UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetarako.
- Errotuluak euskaraz jartzeko.
- Irudi korporatiboa euskaratzeko.
- Euskarazko web guneak sortzeko.
- Programa informatikoak euskaraz jartzeko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Euskara jarduera puntualetarako.
- **Euskaraz publizitatea egiteko.**

Jarduera puntualak dira berezko ezaugarriengatik aurreikusi ezin izan direnak, edota aldian behinekoak direlako oinarriotan zehaztutako epean burutukoak. Ebazteko ahalmena duen udal organoak, edo honek eskuordetutakoari dagokio ekimenaren izaera puntuala zehaztea Euskara batzordeari entzun eta gero.

4. *artikulua*. Bete beharreko baldintzak.

a) Ohiko euskara jardueretarako:

- Euskararen normalizazioan eragitea.
- Urteko jarduera eta egitasmoak euskaraz burutzea.
- Euskarazko prentsa eta telebisten kasuan:
 - a) Osorik euskaraz argitaratu eta emititzea.
 - b) Zabalkunde esparrua Azkoitia ere izatea.
 - c) Irabazteko asmorik ez izatea.
 - d) Udalaren aldetik bestelako diru laguntzarik ez jasotzea.

b) Euskara ikasteko:

- Azkoitian erroldatuta egotea, gutxienez, ikastaroak irauten duen bitartean.
- Hamasei urte beteta izatea.
- Gutxienez %85eko asistentzia izatea ohiko, autoikaskuntza, internet bidezko ikastaroetan, ikastaro trinkoetan eta barnetegian.
- Ikastaroa gainditzea.
- Ikastaroa utzi ala gaintitzen ez bada, itzuli beharko zaio Udalari lehen ordainketaren bidez jasotako diru-laguntza.

c) UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetarako:

- Azkoitian erroldatuta egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea.
- %100eko asistentzia izatea.

d) Errotulua, irudi korporatiboa, web orria eta programa informatikoak euskaraz jartzeko:

- Egoitza soziala eta fiskala Azkoitian izatea.
- Testua euskaraz zuzena eta kalitatezkoa izatea.

Errotulu eta irudi korporatiboaren kasuan:

- a) Errotulu ala irudi korporatiboko elementuko testua izena edo izen-abizenak bakarrik bada, ez da diru laguntzarik emango. Testuak jardueraren berri eman beharko du (hau da, taberna, okindegia, arropa-denda, ...).
- b) Errotulu edo irudi korporatiboko elementu berria euskaraz edo bi hizkuntzetan jartzea. Testua ele bitan badago, euskarari eman beharko zaio lehentasuna.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Web orrien kasuan:

- a) Web orria euskaraz edota euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan izatea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentaia beste hizkuntzen antzekoa izan beharko du. Are gehiago, sarreran euskarazko hautapena lehentasunez egina egon beharko du.
- b) Web orria erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean.
- c) Diruz lagundutako web orritik ezingo da euskarazko informaziorik kendu.
- d) Euskara eta beste hizkuntzetan egindako web orrietan euskarazko bertsioa beti eguneratuta izan behar du.

Programa informatikoen kasuan:

- a) Programa informatikoa euskaraz izatea. Honek ez du eragotziko beste hizkuntzetan ere izatea.
- b) Zerbitzua euskaraz emateko gai izatea.

e) Euskara jarduera puntualetarako:

- Euskararen normalizazioan eragitea.
- Jarduera euskaraz izatea.
- Zabalkunde esparrua Azkoitia ere izatea.
- Udalaren aldetik bestelako diru laguntzarik ez jasotzea.

f) Euskaraz publizitatea egiteko:

- **Egoitza soziala eta fiskala Azkoitian izatea.**
- **Zabalkunde esparrua Azkoitia izatea.**
- **Testua euskaraz zuzena, jatorra eta egokia izatea.**
- **Testua izena edo izen-abizenak bakarrik bada, ez da diru laguntzarik emango. Testuak jardueraren berri eman beharko du (hau da, taberna, okindegia, arropadenda, ...) eta gutxienez mezua ere iragarri behar du.**

Gizabanakoen kasuan, azkoitiarra izatearen baldintza Udalak berak egiaztatuko du Biztanleen Udal Erroldaren bidez.

5. artikulua. Eskatzaileak.

Diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte:

- Legez eraturako erakunde, talde, elkarte, establezimendu, zerbitzu enpresa eta lantegiak.
- Euskara jarduerak burutzen dituzten gizabanakoak ala helburu bererako elkartutako pertsona taldeak.
- **Azkoitiko udalerrian jarduera ekonomikoa garatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.**

Diru laguntza horiek beste batzuekin batera daitezke; horrela bada, adierazi egin beharko da jarduera bererako bestelako diru laguntzak eskatu direla.

6. artikulua. Diru laguntzen zenbatekoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

a) Euskara ikasteko diru laguntzak:

- Euskaltegian neguan eta udan ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikularen %75a. Nolanahi ere diru laguntza ez da 350,00 eurotik gorakoa izango.
- Ikastaro trinko, autoikaskuntza eta internet bidez ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikularen %70a, beti ere 350,00 euroko mugarekin.
- Barnetegian ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikula, jatordu eta egoitza gastuen %70a, beti ere 1.050,00 euroko mugarekin.
- Urtero eskatzaileko gehienezko laguntza 1.400,00 eurokoa izango da.

b) UEU, UPV-EHU eta HIK HASIren uda ikastaroetako:

- Matrikularen, eta ez egonaldiaren, kostuaren %75a ordainduko du Udalak ikasle, langabetu, 14.000 eurotik beherako errenta duten pertsonak, 15.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten bizikidetzako unitateak, erretiratu nahiz pentsiodunei, eta %25a lanean ari direnei. Nolanahi ere diru laguntza ez da 150,00 eurotik gorakoa izango.

c) Errotuluak euskaraz jartzeagatik:

- Kanpoko errotulua euskaraz jarritz gero, kostuaren %50a Udalak ordaindu du. Diru laguntza gehienez ere 360,00 eurokoa izango da.
- Gaztelaniazko kanpoko errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jarritz gero, kostuaren %20a Udalak ordainduko du. Diru laguntza gehienez ere 100,00 eurokoa izango da.

d) Irudi korporatiboa euskaraz jartzearen:

Irudi korporatibotzat Udalak honako elementuak hartuko ditu: kartazalak, paperetako idazpuruak, bisita txartelak, identifikazio zigilua, inprimakiak (albaranak, fakturak, ...), produktuak biltzeko papera, poltsak, ibilgailuen errotulazioa eta establezimenduaren barne errotulazioa.

- Elementu horien testua euskaraz jarritz gero, kostuaren %60a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 360,00 eurokoa izango da.
- Elementu horien testua euskaraz eta gaztelaniaz jarritz gero, betiere euskarari lehentasuna emanez (tokia, neurria, ...) kostuaren %20a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 120,00 eurokoa izango da.
- Elementu bakoitzarengatik behin bakarrak jaso ahal izango da diru laguntza.
- Urtero eskatzaileko gehienezko laguntza 360,00 eurokoa izango da.

e) Web orriak euskaraz jartzeagatik:

- Web orri osoa euskaraz jarritz gero, Udalak kostuaren %60a ordainduko du, betiere 600,00 euroko mugarekin.
- Web orriko hasierako orria euskaraz eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntza batean jarritz gero, kostuaren %50a ordainduko du Udalak, betiere 500,00 euroko mugarekin.
- Web orri osoa euskaraz eta gazteleraz jarritz gero, Udalak kostuaren %25a ordainduko du, betiere 250,00 euroko mugarekin.

f) Programa informatikoak euskara hutsez jartzeko:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Programa informatikoa euskara hutsez jarritz gero, kostuaren %100 ordainduko du Udalak, betiere, 600,00 euroko mugarekin.
- Udalak ez du ordainduko euskarri informatikorik (hau da, sagua, teklatura, disko gogorra, ...).

g) **Publizitatea euskaraz egiteagatik:**

- **Publizitatea euskaraz eginez geroz, Udalak kostuaren %60a ordainduko du, betiere 600,00 euroko mugarekin.**
- **Publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz euskarari lehentasuna emanaz (tokia, neurria, ...) eginez gero, kostuaren %50a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 500,00 eurokoa izango da.**
- **Publizitatea euskaraz eta gazteleraz eginez geroz, Udalak kostuaren %20a ordainduko du, betiere 200,00 euroko mugarekin.**

Laguntzearako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan banatuko da.

7. artikulua. Eskaren aurkezpena.

Interesatuak hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

1. Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen diru laguntza eskari normalizatuetan (I. Eranskina). Halaber, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal dira.

2. Egitasmo edo jardueraren arduradunak diru laguntza eskatu ahal izateko, eskaera normalizatuaren atal guztiak betetzea.

Eskaerekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Ohiko euskara jardueretarako diru laguntza lehen aldiz eskatuko dutenek:

- Erakunde, talde eta elkarteak Eusko Jaurlaritzako elkarte edo erakundearen erregistroan zein elkartearen Udala erregistroan errolatuta daudeneko ziurtagiria.
- Elkartearen edo erakundearen estatutuak.
- Elkartearen curriculum vitae: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, etab.
- Diru sarrera eta gastuen urteko aurrekontua.
- Urteko jardueraren egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle talderentzako pentsatu den, etab.
- Arduradun(ar)en N.A.N. fotokopia.
- I.F.K. fotokopia.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

b) Ohiko euskara jardueretarako aurreko urtean eskaera egin duten guztiek:

- Diru sarrera eta gastuen urteko aurrekontua.
- Elkarteari buruzko txosten laburra, oinarri hauetako 8. ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Urteko jarduera egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle talderentzako pentsatu den, etab.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.

c) Ohiko euskara jardueretarako eskaera gizabanakoek edota eraketa finkoa ez duten taldeen izenean egiten bada:

- Arduradun(ar)en N.A.N. fotokopia.
- Arduradun(ar)en edo taldearen curriculum vitae.
- Diru sarrera eta gastuen urteko aurrekontua.
- Elkarteari buruzko txosten laburra oinarri hauetako 8. ataleko puntuan zehaztutakoa jasoko duena.
- Urteko jarduera egitasmoa: Jarduerak egiteko epeak eta datak, metodologia, helburuak, zein biztanle talderentzako pentsatu den, etab.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.

d) Izaera puntualeko euskara jardueretarako diru laguntzak eskatu duten guztiek:

- Jardueraren historia eta/edo parte hartzaileen curriculum vitae.
- Egitasmoaren antolaketa zehazten duen txosten teknikoa.
- Jarduera esparrua.
- Parte hartzaileak, mailaka edo adinka zehaztuta.
- Jardueren toki eta datak.
- Jarduerari emango zaion zabalkundea (telebista, irratia, prentsa).
- Ikusle kopurua.
- Antolaketarako materialak eta giza baliabideak.
- Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen fitxa osoa.
- Ekonomia txostena, jardueraren gastuak eta sarrerak zehaztuta.
- Beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako edo hitzartutako diru laguntzak, behar bezala egiaztatuta. Bestela, dirurik jasotzen ez delako zinpeko aitorpena.
- Erantzukizun zibilerako eta istripuetarako aseguru kontratuaren kopia.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.

e) Euskara ikasteko:

e.1.) Urrian hasten diren ikastaroen kasuan:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- N.A.N. fotokopia.
- Matrikularen ordainketa agiria.

e.2.) Udako ikastaroen kasuan:

- N.A.N. fotokopia.
- Matrikularen ordainketa agiria.
- Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.
- Asistentzia baldintza halabeharrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du.

e.3.) Barnetegi, autoikaskuntza, ikastaro trinko eta internet bidezko ikastaroen kasuan:

- N.A.N. fotokopia.
- Matrikularen ordainketa agiria.
- Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.
- Asistentzia baldintza halabeharrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du.

f) UEU, EHU –UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetarako:

- N.A.N. fotokopia.
- Matrikularen ordainketa agiria.
- Ikasle, langabetu, erretiratu edo pentsioduna izatea ziurtatzen duen agiria.
- Oinarrietan ezarritako diru sarrerak baino txikiagoak dituzten pertsonak edo bizikidetzako unitateek, errenta aitortenaren fotokopia; edota aitortena nahitaez egin beharra ez dutela adierazten duen egiaztagiria, eta, gainera, lana ematen dien enpresak egindako Diru sarreraren ziurtagiria edo dagokion 10T-a eta aurkeztutako diru sarrerez gain bestelako inolako diru sarrerarik ez dutela egiaztatzen duen zinpeko aitortena.
- Ikastaroa egin izanaren agiria. Bertan asistentzia adieraziko da.

g) Errotulua, irudi korporatiboa, web orria eta programa informatikoak euskaraz jartzeko eskaera egiten dutenek:

- N.A.N. edo I.F.K. fotokopia.
- Gastua eginda badago, fakturaren fotokopia ala aurrekontua.
- Errotuluen kasuan, errotuluaren argazkia.
- Euskaraz jarritako irudi korporatiboko elementuaren ale bat (kartazala, bisita txartela, albarana, faktura, poltsa, ...).
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.

h) Publizitatea euskaraz egiteagatik eskaera egiten dutenek:

- N.A.N. edo I.F.K. fotokopia.
- Publizitatearen ordainketa agiria.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Itzulpenaren ala zuzenketaren ordainketa agiria.
- Paperean egindako publizitatea bada, ale bat. Ikusentzunezko publizitatea bada, euskarri digitalean kopia bat.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria (II. Eranskina) ala aipatutako erakundeek luzatutako ziurtagiriak. Ziurtagiriak aurkeztu behar dira jasoko den diru laguntza 3.000 eurotik gora izatea espero denean. Gainontzeko kasuetan agiriarekin nahikoa da.

Agiriok ez aurkezteak diru laguntza jasotzeko uko egiten zaiola esan nahiko du. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutzeak diru laguntza hau, edo ondorengoak, jasotzeko eskubide galera ekarriko du.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, halaber, hala egiten ez badu, bere eskaria ez dela kontuan hartuko eta, hala ebatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikulua aurreikusten dituen terminoen arabera.

Aurreko urteetan eskaria egin izan duten erakunde edo taldeek, datuetan (estatutuetan, helbidean, ordezkaritzan,...) aldaketarik izan badute, eskaria lehen aldiz egingo dutenei eskatutako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

9. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa.

Ohiko jarduera denean, diru laguntza eman dela jakin bezain laster, diru laguntzaren %75a ordainduko da eta horretarako ez zaie inolako bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %25a onartutako diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Euskara ikasteko urrian hasten diren ikastaroen kasuan, diru laguntza eman dela jakin bezain laster, diru laguntzaren %40a ordainduko da eta horretarako ez zaie inolako bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %60a onartutako diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Euskara ikasteko uda, barnetegi, autoikaskuntza, ikastaro trinko eta internet bidezko ikastaro, eta UEU, EHU-UPN eta HIK HASIren uda ikastaroetako diru laguntzak, aldiz, kurtsu bukaeran emango dira, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

Errotulua, irudi korporatiboa, web orria eta programa informatikoak euskaraz jartzearen, berriz, ordainketa bakarria egingo da, justifikatu eta gero, behin diru laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean. **Publizitatea euskaraz egiteagatik ere bai.**

Jarduera puntualen kasuan, azkenik, ordainketa bakarria egingo da, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

Dena dela, izaera puntualeko jarduerak direnean edo bestelako egoera bereziren bat, Euskara batzordeari entzun eta gero, ebatzeko ahalmena duen udal organoak, edo honek eskuordetutakoak, hemen zehaztutakotik kanpo egin dezake ordainketa, elkarteak behar bezala arrazoituz gero.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru laguntza ordainketak banku transferentzia bidez kitatuko dira.

BIGARRENA.- Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Oinarrietako aldaketa horiek informazio publikoan jartzea, hogeita hamar lanegunetan, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

LAUGARRENA.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, behin betiko onartutzat hartzea aipatutako oinarrietako aldaketak.

Halere, Ubalbatzak egokiena erabakiko du.

Azkoitia, 2016ko maiatzaren 16a.

BATZORDEKO IDAZKARIAK